

Gerra Zibila eta gerraostea Baztanen 1936-1946

Iker Frias Iturria

Historian lizentziatua

Sarrera

Lan honetan Baztango eremuan garai historiko batzuk ikertzeko asmoa daukat. Gerra Zibila eta Gerraoste garaiak, hain zuzen, Euskal Herriko historian oso gogorak izan ziren: gerra, bonbardaketak, heriotzak, atxiloketak, torturak, fusilamenduak... Baztanek, garaileen alderdian, ez zuen hain zigor bortizik jaso, baina *beste* baztandarrek garaileen haserrea pairatu behar izan zuten.

Nafarroa altxatuen bandoko jarraitzaile sutsuz beteta zegoen eta nafar askok Francoren armadetara joan behar izan zuten, (denok ezagutzen ditugu nafar erreketen ibilerak Gipuzkoan eta Bizkaian). Garai hartako sarraskietatik dator, adibidez, "navarro ni de barro" esaera. Nafarroan frontierik egon ez arren, heriotzak egon ziren. Faxisten errepresioa oso bortitza izan zen; fusilamenduak, atxiloketak, ihesak... ohikoak izan ziren garai hartan. Nafarroako sozialistak, komunistak, anarkistak eta abertzaleak hil zituzten, edozein herritako bide ertzetan lurperatuz. Errepresio horren gertaera bortitzena Erriberan izan zen, bertan "gorriek" indar nabaria baitzuten. Faxistek gerra irabazi zuten eta diktadura gogorra ezarri zen Espainia guztian, 40 urte luzez iraun zuena.

Baztanek, Nafarroako iparraldean, Gerra Zibila bere modura bizi izan zuen. Hemen errepresioa ez zen hain gogorra izan, baina heriotzak, atxiloketak eta ihesaldiak ere egon ziren. Baztanen garrantzia mugaren hurbiltasunean datza. Muga hurbil izateak jende mugimenduak (iheslariak), kontrabandoa eta halakoak errazten dituenz muga babestu beharra egoten zen. Baztandik gazte asko joan zen gerrara, baina beste askok nahiago izan zuten Frantziarantz ihes egin.

Gerraostean, aldiz, Baztanen aldaketa nabariak izan ziren. Alde batetik, aipatu dudan bezala, mugaren garrantzia hor zegoen. Eta garrantzi hori areagotu egin zen, II. Mundu Gerraren testuinguruan, Aliatuengandik babesteko beharrak eraginda, Franco Ardatzaren adiskidea baitzen. Horregatik muga indartu zuen, Baztangoa barne. Bestalde makien mugetatik sartzeko saiakerek eta ekintzek, eskualdea gehiago militarizatu zuten. Gerraosteko goseak eta horniketa faltak eraginda, muga kontrabandoaren ugaltze ikaragarria gertatu zen.

Lan honetan aipatu gaiak garatzen saiatuko naiz. Egindako elkarrizketek garai hartakoen ikuspuntua eman didate, eta informazio garrantzitsu asko bildu ahal izan dut. Horregatik "eskermila" eman nahi diet elkarrizketatu guztiei, beraien laguntzarik gabe ezin izango nukeelako lan hau burutu.

I.- Gerra Zibila Baztanen (1936-1939)

Baztan, Nafarroako iparraldean dago eta probintziako udalerririk handienetakoa da. Historian zehar Baztan, Frantziako mugatik hurbil kokatzeak, leku estrategiko eta kontrabando leku bihurtu du. Kontrabandoa baztandarren artean oso sartua egon da eta bertakoek "gaueko lana" deitzen zioten, duela urte gutxi amaitu

zen aratxeen kontrabandoa, orain bertokoek jakin ez arren, droga, emigranteak edo "auskalo" zer, pasatuko diren mugetatik.

Baztanen mugak oso zabalak dira, iparraldean Lapurdirekin (Sara, Ainhoa, Ezpeleta...), ekialdean Nafarroa Beherearekin (Urepele, Aldude, Baigorri...), hegoaldean beste nafar eskualde batzuekin (Erro eta Ultzama haranarekin) eta mendebaldean beste batzuekin (Etxalar, Bertizarana eta Malerrekarekin). Baztango iparraldean, berezitasun bat dago, Frantzia eta Baztango alde txiki baten artean, Urdazubi eta Zugarramurdi herri nafarrak daude eta bi herri hauek Baztanetik independenteak izan arren, haranarekin harreman handiak izaten dituzte. Urdazubin, Dantxarinea izena duen muga postu garrantzitsua dago, Baionatik gertu.

Baztango harana, hamabost herrik osatzen dute eta bailarako hiriburua Elizondo da, merkataritza eta administrazioaren gunea. Baztanek udaletxe bakar bat dauka Elizondon eta beste herriek alkate "juradoak" dituzte herrien beharrak asetzeko. Sistema konplexua da, baina antolamendu mota hau aspalditik zetorren eta oraindik urte askoz iraungo duela dirudi. Baztango herriak Elizondo, Irurita, Erratzu, Arizkun, Elbete, Azpilkueta, Gartzain, Lekaroz, Ziga, Aniz, Berroeta, Arraioz, Oronoz-Mugaire, Almandoz eta Amaiur dira. Azkeneko hau, Amaiur, haraneko sistema administratiboan azkena sartu zen, hirurogeiko hamarkadan.

I. 1. Bigarren Errepublika Baztanen.

Beste tokietan bezala, Baztanen II. Errepublika ezartzean mugimendu demokratiko berriak ernatzen hasi ziren eta aldi berean, bai alderdiak eta bai sindikatuak antolatzen hasi ziren. Faktore berria sartu zen baztandarren arteko harremanetan: Politika. Orduan, eta gaur ere, erreparoa handia zegoen publikoki baztandarrek bere iritzia agerian uzteko.

Errepublikaren ezartzeak, aldaketa gutxi ekarri zien baztandarrei. Aldaketak txikiak izan ziren: eskolan gurutzea kendu zuten eta bandera ere aldatu zen. Errepublikaren etorrerarekin, erlijioa kendu behar zutela erraten zuten asaldatu batzuek. Baina ia denak berdin jarraitu zuen, dena lasai zegoen eta baztandar gehienek normaltasunez beraien bizitza egiten segitu zuten.

Haran honetako historia modernoari hasiera emateko Amaiurren gertatukoarekin hasiko naiz. Amaiurren, Nafarroako konkista garaian, gaztelu bat egona zen, eta gaztelu honetan, gaztelarren aurkako azken erresistentzia burutu zuten nafarrek¹. Gertaera honen omenez eta Nafarroaren independentzia oroitzeke, gaztelua zegoen tokian marmolezko obelisko bat jarri zuten, Julio Altadill-en proposamenez. 1920ko uztailaren 22an, bertan lauhun pertsona inguru bildu ziren eta solemnitaterik osoz lehenengo harria jarri zuten. Bere hitzaldian Oroz jaunak zera erran zuen: "Aquí antes derruido que vencido, el

¹ Nafarroako konkista (1512-1530), prozesu konplexua izan zen gora-behera handiekin. Gerra ekintza garrantzitsuak gertatu ziren Frantzia eta Espainiaren artean eta Nafarroa gerra honen erdian zegoen, baina guda-zelaietan espainiarrak garaile atera ziren. Nafarrek ia dena galdua ikusi zuten, Noaingo batailaren ondoren, nafar talde bat 1522an Amaiurko gazteluan sartu zen eta borrokan jarraitu zuen, gaztelua setiatu eta garaitu zituzten arte. Ekintza hau urteetan zehar goraiatua eta mitifikatua izan da.

castillo de Amaiur cobijó a los postreros defensores de nuestra libertad y autonomía" (Esparza, 1986: 161).

Berehala agertu ziren Amaiurko monumentua begi onez ikusten ez zuten hainbat nafar. Garai hartako egunkarietan eztabaida sutuak argitaratu ziren. *Diario de Navarra* eta *La Voz de Navarra* artean. Horrela, 1931ko uztailaren 26an, Elizondon Santiago Jaiak izaki, euskal Estatutua eztabaidatzen ari zirela, ezezagun talde bat Amaiurko gazteluaren monumentura igo eta monumentuari zenbait kartutxo dinamita eta 18 metrotako metxa jarri zizkioten. Eztanda oso gogorra izan zen Amaiur herri osoa esnarazi baitzuen; eta harriak mendian behera zihoazela ere ikusi zuten. Monumentua eraso zutenek Iruñeranzko bidetik ihes egin zuten.

Eztabaida handia piztu zen baztandar biztanleen artean. Nork ezandarazi zuen monumentua? Baztanen errepublikaren aldekoiei leporatu zieten, erranez gainera Gipuzkoako Gobernadoreak ere parte hartu zuela eta Indalecio Prietoren kontsigna izan zela (Esparza, 1986: 161). Ez da oraindik argitu nork edo zein alderdiko kidek leherrarazi zuen monumentua, baina segur aski eskuindar talderen bat izan zen. Euskal nazionalistek ere, ezin gorde izan zuten euren atsekabea eta haserrea. Harrez gero, Amaiur abertzaleen biltoki eta askatasunaren ikur bihurtu zen.

Errepublikan, hasieran aipatu dudan bezala, garai honetan alderdi politiko berriak agertu ziren haranean, baina dudarik gabe karlistak ziren talderik ugariena. Karlisten ideologia laster barneratu zuten nekazariak. Alderdi hau haraneko betiko alderdia zen. Baztan XIX. mendeko karlistadetan karlisten feudoa izan zen eta II gerra karlistan ere Baztan izan zen borrokan jarraitu zuen azken lurraldeetarikoa. Atxurian gerrako azken bataila gertatu zen. Karlistek ez zuten alderdi egituratu baten antolakuntzarik, populista, historikoa eta familia aberatsetan sustrai onekoa bazen ere. Jauntxoak, alderdi honen inguruan zeuden elkaturik, nahiz hauteskundeetan beren aurpegiak ez erakutsi. Gerra hasi baino lehen Baztango karlistek ez zeukaten erreketen patruila antolatuz. Era berean, altxamenduarekin azaldutako gazte falangistak, lehen karlista izanak zirela uste izatekoa da.

Abertzaleak ere egon ziren Elizondoko Polonia etxean. EAJk 1933ko maiatzean Euzko Etxea zabaldu zuen, presidentzian Ignazio Iturria, Jose Azkarate, Emiliano Goñi eta Tiburcio Irigoien zituela. Batzoki honek bazuen jangela, ostatua eta liburutegia, eta kultur ekitaldiak antolatzen zituen. EAJren hazkundera gisa berekoa izan zen haraneko herri guztietan. Interklasista, herritarra eta indartsu ezarri zelarik. Altxamendua gertatu zenean, adibidez, Baztango alkatea nazionalista zen, nazionalistak indartzen ari ziren erakusle.

1932ko azaroan eratu zen "Acción Republicana", alderdiaren batzordean Joaquin Sobrino, Luís Asiron, Alfonso Etxenike, Vicente Olabe, Celestino Egurrola eta Francisco Inbuluzketa zeuden. Baina hurrengo urteetan estatu mailan alderdi errepublikar ezkertiarren batasuna eman zen, horrela Izquierda Republicana sortuz. Alderdi hau Baztanera 1934an iritsi zen eta zuzendaritza batzordea eratu zen, Tiburcio Azkarate, Arnulfo Gainza, Jose Irazu, Elias Viguera eta Blas Marin (haraneko alkate ohia) zeudelarik. Beren biltoki propioa

izan zuten eta traba guztien gaintik erran behar da beren garrantzia nabaria izan zela Baztango bizitza politikoan.

Azkenik, Baztango mapa politikoan, aipatu behar da sozialisten, Solidaridad de Obreros Vascos-en eta Acción Nacionalista Vasca taldeen presentzia zegoela, baina oso presentzia txikia eta sinbolikoa zutela.

Elizondon, mitin garrantzitsuak antolatu ziren. Entzulerik gehien, hizlaririk onenak izan zituztenak, haraneko bi partidu nagusietakoak izan ziren: karlistak eta nazionalistak. Ekitaldi politiko hauek, maiz festa giroan egiten ziren: kalejira, musika, dantzak... beste herrietako jendea etortzen zelarik eta baita urruneko agintari jendea ere.

Errepublikaren etorrerarekin hauteskundeak egitea baztandarrentzat gauza berria izan zen. Errepublikaren hasieran, 1931ko ekainaren 28an, udal hauteskundeak egin ziren, hauteskunde hauetan parte-hartzea altua izan zen: %81,56a. Eskuindarrek irabazi zuten %81-90 lortuz eta gainontzekoek errepublikar-sozialistek bozkatu zieten². Lehenengo udal batzarrean eskuindarrek zeukaten boterea alderdi karlistaren ingurukoa zen.

1933ko apirilaren 23an, berriro ere udal hauteskundeak egin ziren, parte-hartzea txikiagoa izan bazen ere: %76,19. Baina udal batzarrean gauza gutxi aldatu ziren. Eskuindarrek botoen %61-70a lortu zuten. EAJk botoen %21-30a eta errepublikar-sozialistek %0-10 bitartean³. Aipatzekoa da, EAJ alderdiak hiru kide udal batzarrean sartu zituela eta gainera bat alkate izendatu zutela. Ignacio Iturria Baztan Buru Batzarreko lehendakari ohia zen eta alkatezara heldu zen, zeren haraneko zinegotzi eskuindarren artean ideologia ezberdinetakoak eta independenteak zeuden, Eskuindar Blokearen gailentasunari aurre egin nahi ziotenak. Horrela zinegotzi nazionalistek, independenteak eta Eskuindar Blokearekin bat ez zetozen eskuindarrak, "candidatura municipalista" bat osatu eta alkate Ignacio Iturria jarri zuten⁴.

Aipatzekoa da, garai hartako baztandar gehienak guztiz apolitikoak zirela, politikaz jabetzeko bide bakarrenetakoa egunkaria irakurtzea baitzen. Populazioaren zati bat analfabetoa zen eta irakurtzen zekitenak, zer irakurtzen ari ziren ez zuten ulertzen. Politikaz zekitenak apaiza, jauntxoak eta irakasleak ziren. Erran bezala populazioaren gehiengoa apolitikoa zen eta politikan aritzen zirenak gutxiengoa ziren. Jauntxoek politikan parte hartzen zuten baina hauteskundeetan euren aurpegia erakutsi gabe. Eskuindarren eta nazionalisten atzean eskualdeko handikiak zeuden.

1935ean Elizondon ikastola bat ireki zuten abertzaleek, Elizondoko jaun euskaltzale baten laguntzaz. Lau eta hamabi urte bitarte zituzten berrogei haur inguru joaten ziren. Andereño gazte bat ipini zuten haur guztientzat, Pilar Alba Loiarde goizuetarra. Ikastola ongi antolatua zegoen eta ikasteko beharrezkoak

² IX. kapituluaren (Ferrer, 1992)

³ X. kapituluaren (Ferrer, 1992)

⁴ Iruñeko merindadean, beste udalerrri batzuetan ere, blokearen aurkako kandidatura bat osatzen saiatu ziren. Badirudi zinegotzi hauek, hau burutzean alderdietatik nahiko independente ibili zirela, (Chueca, 1999: 320-321).

ziren materialak zituzten: liburuak, lapitzak, mahaiak, aulkiak etab. Eskuindarrak ikastolaren aurka atera ziren, legalitaterik ez zuela erranez, eta itxi egin zuten. 1936ko otsaileko hauteskundeetan, espainiar estatuan Herri Fronteak irabazi zuen, eta askatasun gehiago zegoenez, berriro ireki zen. Haurrek berriro bertan ikasten jarraitu zuten, baina ez luzerako. Gerra hasi zenean erreketek ikastolako materiala hartu eta Miserikordiako eskolara eraman zuten guztia. Bertan zeuden liburu asko erre ere egin zituzten. Ikastola itxi eta erreketentzat geratu zen, atean *Cuartel de Pelayos* jarriz⁵.

1936ko otsaileko hauteskundeetan alderdi guztiak etxez etxe boto bila ibili ziren propaganda asko eginaz. Istilu ugari gertatu zen, zeren guztiek lortu nahi zuten hauteskundeak irabaztea eta botoengatik lehia bizia zegoen. Alderdietako militanteak jendea eurei bozkatzeko beldurtzen eta mehatxatzen aritu ziren. Eskuindar handikiek, etxe eta lur askoren jabeak zirenez, eskuindarrei bozkatzera behartzen zituzten batez ere alokairuan zeudenak, bestela kalera bidaliko zituztela erraten baitzieten. Bozkatzeko orduan, pertsona batzuk botoa erakustera behartzen zituzten, eta baita euren alderdiari bozkatzera behartu ere.

Gauzak honela, hauteskunde hauek ez ziren libreak izan, mehatxuak eta boto erosketak aruntak izan baitziren, klientelismoa oraindik oso errotua baitzegoen. 1936ko otsailaren 16an, Baztanen eskuindarrak atera ziren garaile, hauteskundeetan 2.740 boto bereganatuz. Bigarrenak euskal nazionalistak, 858 botorekin eta ondoren Herri Frontea 358 botorekin (Esparza, 1986: 163). Herri Frontea nabarmenki igo zen, nahiz eta beti bezala eskuindarrek irabazi.

Elizak, herritarrengan indar handia zuen. Eta kanpotik heltzen ziren albisteak oso txarrak ziren: monjeen eta fraideen komentuen erreketak, zakuratzeak, elizen erreketak etab. Informazio gutxi iristen zen herrietara, eta askotan, Elizak, errepublikarrak beraien kontrakoak zirela erraten zuen. Ekintza hauek beldurra sortu zuen baztandar anitzen artean.

I. 2. 1936ko uztailaren 18ko Altxamendu Militarra

Arestian aipatu dudan bezala, Nafarroa altxatuen feudoa izan zen, altxamendua Iruñean hasi eta Nafarroa osora hedatu baitzen. Baztan-Bidasoa eskualde honetan nahasmena eta beldurra izan ziren nagusi gerrako lehen egun hauetan.

Molak gerra-egoeraren bandoa (*Estado de guerra*) uztailaren 19an ezarri zuen Iruñetik, eta bere tropak (soldaduak, erreketek eta falangistak) Nafarroan altxamendua indartzera abiatu ziren: Lizarrara, Zangoza aldera, Tuterara, Tafallara etab. Gipuzkoan militarrek oraindik ez ziren altxatu⁶, baina altxatu

⁵ Elizondoko ikastola Nafarroako euskaldun eskualdeko ikastola bakarra izan zen. Beste bi ikastola ireki zituzten nafar abertzaleek, Iruñean eta Lizarran, euskara ia galduta zegoen eskualdetan hain zuzen. Gerra hastean, hirurak amaiera berdintsua izan zuten: karlistek itxi zituzten. (Chueca, 1999: 162-163).

⁶ Donostiako Loiola kuartelean, ezin erabakia izan zen nagusi lehenengo egunetan. Gainera populazioaren gehiengoa Errepublikarekiko leiala zen eta altxamenduari kontra egiteko prest

zirenerako beranduegi zen, porrota izan baitzuten. Baztan-Bidasoako alderdian, uztailaren 19 eta 20an, Bera eta Elizondoko karabineroak altxamenduaren aurka atera ziren, baina gutxi izanik Gipuzkoa aldera erretiratu ziren Irungo batailan parte hartuz.

Une haietan tentsioa bizi izan zen guardia zibilaren eta karabineroen artean. Karabineroen gehiengoa Errepublikari leial mantendu zen, horregatik Espainia frankistak gorputz armatu hau deuseztatu zuen (*Guardias de Asalto* bezala). Errepublikar aldean, berriz, guardia zibila *Guardia Nacional Republicana* izatera pasa zen. Bi gorputzen arteko tentsioa Elizondon geratutako karabinero eta guardia zibilaren artean azaldu zen. Izan ere, karabinero batzuk gerra egoera ezarri zenean ihes egin zuten, baina gelditutakoak, Iruñetik altxatuen tropak heltzean, frontera joatera behartu zituzten. Aipagarria da, Oronoz-Mugairin bi polizien artean ia tiroka hasi izana. Eta izatez frontera eramandako karabinero asko beste bandora pasa ziren. Gerra amaituta, Estatu Frankistak berriro karabineroak muga zaintzen jarri zituen.

Altxamenduaren lehen orduetan, Elizondoko kaleak paper propagandistikoak beterik agertu ziren. Paperak aurretik eginak zeuden, Baztango etxeetan gordetik zeuden eta. Badirudi propaganda paper hauek, Frantzia aldean inprimatu zituztela, eta gero Iruñera eramana izan zirela. Altxamendua piztu, eta baztandar batek baino gehiagok erakutsi zuen bere burua nazionalen alde. Haietako zenbait fusilamendurako zerrendak egiten aritu omen zirela ere hedatu zen.

Erratzun, guardia zibileko korneta batek Molaren bandoa irakurri zuen, gerra hasi eta gorriak Endarlatsa zeharkatuz zonalde honetara zetozela erranaz. Erratzuko alkateak eta guardia zibilaren sarjentuak biltzar bat egin zuten. Bertan erabaki zutenaren arabera, herriko gizon armatu guztiak bildu behar zituzten, batzuk Bera aldera bidaltzeko eta beste batzuk herrian zaintza lanetan gelditzeko. Munizioa gizon armatuen artean banatu zuten, baina hauek emandako kartutxoak, ehizarako erabili zituzten eta erabiliak hareaz bete zituzten. Sarjentua ez zen amarruaz konturatu hilabete batzuk pasatu arte (AA, 1995: 41).

Demokratikoki hautaturiko udalak bi urte zeramatzan agintean, alkatea, Ignacio Iturria Zavala zen (nazionalista). Egun haietan alkatea Hondarribian zegoen uda pasa, eta handik zuzen, mugaz beste aldera joan zen. Udal batzarra honakoek osatzen zuten: EAJko bi zinegotzi eta alkatea (Basilio Maisterrena, Juan Etxenike eta Ignacio Iturria), Izquierda Republicana-ko bi zinegotzi (Blas Marín eta Juan Bautista Iribarren), eta alderdi eskuindar desberdinetako hainbat zinegotzi (Saturnino Burguete, Francisco Etxenike, Marcelino Amigorena, Pascual Urrutia, Francisco Jaimerena, Jose Manuel Goienetxe, Jose M^a Iribarren...). Tomas Ariztiak, Antonio Irigoienek eta Fernando

zegoen. Soldadu hauek Donostia hartzera abiatu zirenean kuarteletik aterata, borroka gogorak izan zituzten eta milizianoek soldaduak kuartelean errenditzera behartu zituzten, eta militarren armak milizien artean banatu zituzten. Donostian gertatua Madril eta Bartzelonan errepikatu zen, herriak eta indar polizialek militar altxatuak garaitu baitzituzten. Eskuindar hiri eta herrietan berriz aurkakoa gertatu zen.

Garaikoetxeak zinegotzi jarraitu zuten⁷. Udalaren jabe egin ziren eskuindarrak, Saturnino Burguete teniente-alkateak alkate kargua hartu zuen. Ez zen beste aldaketarik egin udaletxean altxamendua zela eta. José Arrizibitak udaletzeko idazkari jarraitu zuen (Arrizibita Baztango guardia zibileko tenientearen anaia zen).

Irunetik Bera eta Etxalar aldera, milizianoen zutabe bat abiatu zen eta bertako guardia zibilekin enfrontamenduak izan zituen. Jendeak milizianoen zutabea Baztanera zetorrela jakitean beldurra eta izua zabaldu zen Baztango herrietan barna. Jendeari *columna de comunistas* garrasia entzutean, beldur ikaragarria sortzen zitzaion. Aberatsek beren dirua eta aberastasunak (urrezko eta zilarrezko bitxiak, erloju baliotsuak...) mendian ezkutatu zituzten, gorrien beldur. Baserritarrek, euren animaliak mendira eraman zituzten eta janari asko gorde zuten. Iurretako herriaren sarreran barrikada bat egin zuten zutabea geldiarazteko: herriko gizon gazte eta ezkonduak ahal zituzten moduan bildu eta armatu zituzten. Talde armatu hau kamioietan Doneztebe aldera abiatu zen. Herriko gizonak kamioietan joaten ikustean, bihotzekoak jota, Ildefonsa Barberena hil zen, Baztango gerrako lehen hildakoa.

Altxamenduaren lehen egunean, Belateko mendatea (Iruñea-Irun errepide garrantzitsua bertatik pasatzen zen) zuhaitz enborrez itxi zuten, militar altxatuei pasabidea eragotziz. Mendatea zabaldu ondoren, altxatuen bi kamioi heldu ziren Almandozera (Belateko mendatetik gertuen dagoen herria) herriko jendea atxilotu nahian barrikada jartzeagatik. Angel Larrui erretorearen bitartekotzari esker, herritarrak errugabeak zirela baitzioen, ez zuten inor eraman.

Uztailaren 20an, arratsaldeko bortzetan, Iruñetik Luis Villanovaren agindupeko zutabea abiatu zen Baztan-Bidasoa alderantz, handik Gipuzkoarantz sartzeko. Uztailaren 21ean Beorlegi koronelaren (Aiako Harrietan hilko zutena) agindupean aterako zen zutabearen aitzineko talde modura. Zutabe hauen helburua mugaren pasabidea ahalik eta azkarren ixtea eta Donostia inguratzeko aurreratzen hastea zen. Zutabe hau boluntario karlistaz eta falangistez, tropa erregularrez, guardia zibilez eta karabineroz osatuta zegoen. Villanovaren agindupean abiatu ziren boluntarioek Nafarroa Tertzioa osatu zuten, haien artean Iruñeko, Erriberriko eta Irunberriko boluntarioak zeuden gehienbat. Irun hartu baino lehen, Berako karabineroak eta Irungo miliziano zutabea menderatu behar zuten. Uztailaren 21ean zutabea Beran sartu zen tiro bakar bat ere bota gabe. Izan ere, errepublikarrek Bidasoatik behetik Endarlatsako zubiaren beste aldera atzera egin zuten, faxistak mugaldekoko herrian sartu bezain laster zutabea leherraraziz. Handik gutxira, Beorlegi iritsi zen eta zutabearen agintea hartu zuen (Esparza, 2000: 153-154). Bi egun beranduago, uztailaren 23an, altxatuen beste zutabe batek Uretaren buruzagitzapean Baztan-Bidasoa zeharkatu zuen eta lurralde guztia modu eraginkorrean okupatu⁸.

⁷ Baztango Udala, Akten Liburutik (1934-1941). 1936ko irailaren 12ko biltzarrean erabakita, Arrizibita Guardia Zibileko tenientearen aginduz, Iruñeko aginduak betez. 141. orrialdean. Gerra hasi zenetik, udalak ez zuen biltzarrik egin, irailak 12 egunera arte. Badirudi denbora tarte honetan, frontearen hurbiltasunagatik, udaleko kide eskuindarrek denbora pasatzen utzi zutela badaezpada ere, eta aginte osoa Arrizibita tenientearen eskuetan utzi zutela. Gipuzkoako mugako frontea urruntzen hasi zenean, udalak agintea hartu zuen berriro.

⁸ Tropa hauen gehiengoa boluntario karlistetaz osatua zegoen, Iruñea aldekoak gehienak.

Altxatuek eskualdea okupatu zutenean baztandar gehienek egoera berria begi onez ikusi zuten eta gorrien beldurra pasa zen. Elizondon bestak ziren, Santiagoak, eta Iruñetik uztailaren 25ean Mauricio Iribarren (Elizondoko falangista ospetsua) iritsi zen. Hura iritsi bezain laster, bere ingurura jendea hurbildu eta udaletxera abiatu ziren. Han, balkoitik behera bota zuen Errepublikaren bandera, *ahí va ese trapo* erranez. Behean zeudenek hankapean ibili ondoren, erre egin zuten.

Udaletxean bandera gorri-horia jarri eta gero, Elizondoko batzokira joan ziren bertan zeudenak espainiar bandera balkoian jartzera behartuz. Arrizibita tenienteak diskurtso anti-errepublikar bat bota zuen. Behean zeudenak, bitartean, *¡Viva España! ¡Arriba España!* ... oihukatzen zuten.

I. 3. Altxamendua gerra bihurtu zenekoa

Militarrak, Espainiako historian hainbat alditan egin duten bezala, gobernua aldatzeko altxatu ziren, baina altxamendua gerra zibil odoltsu eta errukigabea bihurtu zen. Hiru urtez gerrak Espainiako toki guztietan izan zuen eragina, zuzenean edo zeharka. Baztanek, nahiz eta frontea urrun izan, gerra zeharka jaso zuen.

Faxistak, Irun eta Oiartzun erasotzen hasi ziren Nafarroa aldetik. Lesaka eta Bera bihurtu zuen tropen kanpamendu eta hornidura puntua. Gerrako lehenengo hilabete hauetan, tropen hornidurarako, baztandarrek hornidura zutabeak osatu behar zituzten, ezkongabeak eta ezkonduak joan behar zutelarik. Baztandar hauek beraien etxeko zama-abere bat eraman behar zuten zutabearentzako: zaldia, mandoa edo astoa. Hauekin, hornidurez zamatuta, trintxeren artean banatu behar zuten munizioa eta janaria. Zerbitzu hau betetzen ari zirelarik, errepublikarren trintxeretatik gertu zeudelakoz edo, Irurritako bi gizon hil zituzten: Francisco Felipe Irigoien 40 urtekoa, eta Vicente Zelaieta 36 urtekoa. Zerbitzu hau asteka egin eta aldatuz joaten zen baztandarren artean. Alkateak eta aberatsek ez zuten zerbitzua bete behar, eta beraien semeak edo senideak ez joateko herrietako beste mutilak bidaltzen zituzten euren partez⁹. Zerbitzu hau, 1936ko urri partean, frentea Bizkaia aldera mugitzean bertan behera geratu zen.

Gerrak, soldaduak behar zituenez, gazteak erreklutatzeke bi modu erabiltzen zuten: lehenengoa, boluntario karlista edo falangistena zen. Erreketeak eta falangistak (gerra hasieran batez ere) herrietara joaten ziren, boluntarioak beraien unitateetan sartzeko. Jendea boluntario gisa erreklutatzeke gezurrak erraten zituzten eta gazteei erraten zieten, boluntario sartuz gero, Baztanen muga zaintzen geratuko zirela. Baina denbora gutxi egon ziren muga zaintzan, laster frontera bidali baitzituzten, gehienak Arrasate aldera.

Gizon gutxi sartu ziren unitate hauetan Nafarroako beste zonaldeekin konparatuz. Boluntario kopuruari dagokionez, adibidez, 1936ko kinta deitu zutenean 126 gazte deitu zituzten, 21 ez ziren agertu eta gainontzekoetatik 11 bakarrik joan ziren boluntario¹⁰. Nafarroako erdialdean boluntario kopurua oso handia izan zen, baina Baztanen ikusten denez, boluntario gutxi aurkitu

⁹ Pedro Urrutiaren testigantza, Irurritako alkate "juradoa"-k bere semearen partez Irurritako mutil baserritar bat bidali zuen (Ugarte, 1998: 298).

¹⁰ Baztango Udala, *Acta de Operaciones de Alistamientos*-etik (1938-1941), 93-99. orrialdeetan.

zituzten. Boluntarioen artean gehiengoak erreketean ibili ziren. Elizondon erreketeeek postu egonkor bat ezarri zuten, bertan sarjentu bat zuten buruzagi. Postu honetan bailarako boluntarioak erreklutatzeaz arduratzen ziren eta lehenengo gerra instrukzioa emateaz¹¹

Baztanen, gerra hasieran, lanerako peoiak behar zirenez, Huesca aldean 80 bildu zituzten eta alde hartara bidali. Han finka batean gari uztak biltzen aritu ziren, baina lana utzi behar izan zuten errepublikarrak zonaldea okupatzeko zorian zeudelakoz. Gizon hauek Baztanera itzuli baziren, denborarekin erreklutatu egin zituzten. Gerra hasieran ere beste boluntario talde bat Erriberan uztak jasotzen ibili zen frontera bidali baino lehen. Nekazaritza arloan eskulana falta zenez soldaduak lana egiteko beharrezkoagoak ziren, frontean tiroak botatzen ibiltzeko baino (AA, 1995: 41).

Gerra luzatzen ari zenez armada "kinten" bidez erreklutatzen hasi zen. Hola armadak alkateei agindu zien, herri bakoitzeko "kintoak" biltzeko eta Iruñera bidaltzeko. Lehenago aipatutakoak bezala, aberatsak eta alkateak (hauen senide eta semeak barne) kintetatik ere libre geratzen ziren, diru kopuru bat ordainduz. "Kintena" derrigorrezkoa zenez, gazte askok menditik zehar Frantziara ihes egin zuen. "Kintoak" ihesi harrapatuz gero zigorra kartzela izaten zen.

Horrela denbora ezberdinetan zehar, 1935, 1936, 1937, 1938, 1939, 1940 eta 1941eko kintetako gazteak gerrara deitu zituzten. Zazpi kinta hauetan 696 baztandar deitu zituzten, baina 137 ez ziren agertu eta "profugo" izendatu zituen udaletxeak. "Profugoen" kopurua portzentaiegi begira %19,6koa zen, kopuru nahiko handia, baina ez elkarrizketatukoek erran zuten bezain handia. Gutxi gora behera, beraz, deitutako bortz gaztetatik batek ihes egiten zuen Baztanen. Iheslari kopuru handienak 1937 eta 1938ko kintetan gertatu ziren, kintaren herenak ihes egin baitzuen¹².

Kintetatik libratzen ahal zen. Hori udaletxeak erabakitzen zuen. Libratzeko hiru arrazoi izaten ziren: "inutil total" izatea, "expedido por el Ayuntamiento" edo errekluta berriaren aurretik bere bi anaia borrokan izatea. Bestalde aberatsak diruarekin zerbitzua egiteaz libre geratzen ziren¹³.

Herri Fronteko edo euskal nazionalista izandako gizonak, errepresioari beldurra ziotenez, karlistekin edo falangistekin boluntario joan ziren beraien izena garbitzeko. Ez ditugu ahaztu behar, azkeneko hauteskundeetan izandako emaitzak, 858 boto abertzale eta 358 boto Herri Fronteari.

Errekluta berriak Iruñean biltzen ziren, bertan unitate berriak sortzen zituzten: entrenamendu azkar bat eman eta gero, fronte ezberdinetara bidaltzen zituzten. Gerrara 559 baztandar joan ziren, eta hauetatik, frontean edo frontean

¹¹ Baztango Udala. Akten Liburutik (1934-1941). 1936ko irailaren 29ko biltzarrean erabaki zen, postua ezartzea Ikastola zegoen tokian eta postuaren gastuak udaletxeak ordainduko zituen.

¹² Baztango Udala, *Acta de Operaciones de Alistamientos* (1938-1941). 1-119. orrialdeetan. Liburu hau ez dakit zein urte konkretuan egina dagoen baina ondorioztatzen ahal da gerra bukaerakoa dela zeren eta erreklutamentu osoaz aritzen da.

¹³ Baztango Udala, *Acta de Operaciones de Alistamientos* (1938-1941), 1-119. orrialdeetan.

jasotako zauriengatik, 36 behintzat hil egin ziren¹⁴. Frontean hil zirenen kopuru handiena Aragoiko frontean izan zen, batez ere Teruelgo batailan, 1938an. Soldadu nafarrak gogor borrokatu zirela goraipatzen dute historialari frankistek. Baina nafar anitz fronte ezberdinetan hil ziren Gurutzada Sainduarengatik.

1937ko udan, gerrak sortutako zaurituak sendatzeko, soldaduentzako ospitale militar bat ireki zuten Lekarozeko eskolan. Ospitaleko arduradunak eskolako fraideak ziren. Ospitaleak "Hospital Militar del General Mola" zuen izena. Udaletxeak gastuen ordainketan lagundu zuen, eta Iruritako emakumeek zentroaren garbiketan eta zaurituak zaindu zituzten¹⁵.

Udaletxeak, gerrak iraun zuen bitartean eta eguberriak iristen ziren bakoitzean, "Aguinaldo del Combatiente" antolatzen zuen; saria 1.000 pezetakoa izaten zen. Gerra Zibila amaitzean, bertan behera utzi zuten sari hau, baina Dibisio Urdina Sobietar Batasunera bidali zutenean berriro egiten hasi ziren¹⁶.

I. 4. Errepresioa eta ihesak

Errepresioa, oro har, nazionalista eta errepublikarren kontra bideratu zen. Errepresioaren zuzentzaileak guardia zibileko Arrizibita tenientea eta Gregorio Lopez inspektorea izan ziren, baina baztandarren laguntza ere izan zuten. Arrizibitak horrela erraten zuen bere hitzalditan: 'Si solo fueran enemigos de España la masonería y el comunismo... pero desgraciadamente hay uno más, el nacionalismo' (aipua in *Altaffaylla Kultur Taldea*, 1986: 163). Jende askok errepresioaren beldurrez Frantziara ihes egin zuen. Alkateak, Frantzia aldera ihes egin zuelarik, faxistak haren etxean sartu ziren baliozko gauza guztiak eramanez. Saturnino Burguete alkate berriak hala aholkaturik, Blas Marin (Izquierda Republicana-ko zinegotzia) ere beste aldera pasa zen. Atzerriko bidea hartu zuten halaber, Tiburcio Azkarate, Pascual Lazkano eta Juan Etxenikak, beste askok bezala. Erratzuko Manoli Fagoaga eta Manuel Muruzabal, biak nazionalistak, herritik kanporatuak izan ziren.

San Cristobal kartzelara bidali zituzten Joaquin Sobrino eta Esteban Guillenea, biak Izquierda Republicana-koak. Hauek, lehendabizi, Valladolid aldera deserriratu zituzten, nahiz eta gero Iruñean bizitzeko eskubidea eman. Felix Arizmendi, Manuel Arregi, Felicitas Ariztia, eta Bittori Etxeberriak, berriz, egunero pasa behar izan zuten Gobernu Zibiletik. Sinatu ondoren, sinaduraren ondoan "Viva España" edo "Arriba España" gisako leloak idatzi behar zituzten. Hilabete batzuk pasa ondoren lortu zuten beraien etxeetara itzultzeko baimena. Herrian, ordea, dena aldatu aurkitu zuten: faxistak errepublikar hiriez jabetzen zirenean desfileak eginez ospatzen zuten, beren etxeetara telefonoz deitzen zutelarik zera erraten zieten: "Oiga, un, dos, tres, Bilbao nuestro es". Horrez

¹⁴ Frontean hildako soldadu kopurua aurkitzeko zailtasunak izan ditut, seguraski 36 baino gehiago hilko ziren. Nik kopuru hau Udaleko Aktetatik eta Epaitegiko *Libro de defunciones*-etik atera dut.

¹⁵ Baztango Udala, Akten Liburutik (1934-1941). 1937ko ekainaren 10eko batzarrean erabaki zuen udaletxeak zentroari emandako laguntza. 172. orrialdea.

¹⁶ Baztango Udala, Akten Liburutik (1941-1948). 1942ko azaroaren 10eko udal biltzarrean aipatua. 55. orrialdean.

gain, miaketak, komisariara behin eta berriz joan beharra, eta multak eguneroko gauza izaten ziren. Isunak 100 eta 500 pezeta bitartekoak izaten ziren, garai hartarako diru asko (Altaffaylla Kultur Taldea, 1986: 164).

Ikastola eta batzokia errekiatuak izan ziren, hango liburuak leihotik behera botaz, eta kalean liburu batzuei su emanaz. Hura aski ez nonbait, eta Arrezibita tenienteak Borbondarren bandera paratzeko agindu zien, balkoitik ohiko hitzak erraten zituen bitartean. Antzeko zer bait gertatu zen Erratzun ere, herritar gehienak nazionalistak zirelako edo. Herriko plazan, oholtza gainera igotzera behartu zuten bertako maisu nazionalista Manuel Mugertza, bertan "Viva España" eta "Arriba España" oihukatzen behartuz. Abertzaleen etxeak bandera eta propaganda faxistarekin apaindu zituzten. 1937ko martxoan, Arizkun, Elizondo eta Erratzuko FET y JONS-eko buru hautatu zituzten, Victor Arotzarena, Alberto Alaña eta Ricardo Ribera, bakoitza bere herrian.

Haraneko alkate zen Saturnino Burguete, bere aginteaz baliatuz, inor fusilatua izan ez zedin saiatu zen. Andres Beltzunegi erretoreak ere lagundu zion. Gaez erreketek eta falangistak agertu ohi zirenez, eta fusilatuak izan zitezkeen 22 baztandarren zerrenda egina zegoela jakitean, alkatea eta auzoko batzuk kaleak zaintzen egoten ziren orduko "saca"-k ez gertatzeko. Horretarako herritarrei ohartarazten zitzairen etxeko aterik inori ez irekitzeko.

Hala eta guztiz ere, Baztanen ere odola isuri zen. Altxamendua gertatu eta sei egunetara (1936-VII-24) gorpu bat agertu zen Irurita eta Berroeta artean dagoen bide bazterrean¹⁷. Erratzun, Ceferino Aznar Sancho, 18 urteko Abilitaseko mutila, buruan tiro bat jota agertu zen¹⁸. Oronoz-Mugairen Francisco Mula Castro hil zuten, Diputazioko zeladorea¹⁹. Herri honetan bertan, Miguel Catalanek bere buruaz beste egin zuen oso egoera arraroan²⁰. Arizkunen bizi zen Angel Mikelarena Aiorta, "Murio en las inmediaciones de la casa Perochena de Elizondo el 15-XII-38, por heridas de arma de fuego"²¹. Ikusten denez, hildako hauek kanpotarrak ziren, edo ez dakigu bere izen eta abizenik. Aipatu hilketez gain, heriotza gehiago ere izan ziren, Berroetako Maria Francisca Iturralde Olaetxea, 23 urteko neska hil baitzuten²².

Baztandar gehiago hil zituzten baino gure eskualdetik kanpo. Lekarozeko Xalbador Elorga Zozia, herritik eramane zuten auzokoen denuntziengatik. Diotenez honek erreklutatutako gazteei erran omen zien, harategira zihoazela (AA,

¹⁷ Baztango Epaitegia, *Registro Civil de Defunciones-Libro de Actas de Defunción*, 53. liburukia (1934-1937), 314. orrialdean. Erregistroan ez da agertzen, ez izenik ez abizenik eta ezta ere zergatik hil zen. Gainera Iruritako elkarrizketatuek ez zuten deus aipatu.

¹⁸ Baztango Epaitegia, *Registro Civil de Defunciones-Libro de Actas de Defunción*, 53. liburukia (1934-1937), 385. orrialdean (1937-11-24): "Falleció en Errazu a consecuencia de herida producida en el craneo por arma de fuego".

¹⁹ Baztango Epaitegia, *Registro Civil del Valle de Baztan-Libro de Actas de Defunción*, 54. liburukia (1937-1940), 25. orrialdean (1937-VI-26). 44 urte zituen eta berez Murtziakoa zen.

²⁰ Idem 144. orrialdean (1938-VI-1). 54 urtekoa, Corellakoa eta bere lanbidea industria-gizona zen.

²¹ Idem 199. orrialdean (1938-XI-15). 30 urtekoa, berez Elgorriagakoa (Nafarroa) eta nekazaria zen.

²² Idem 139. orrialdean (1938-VI-17). Berroetako neska gazte hau izan zen, bere herrian hil zuten baztandar bakarra. Izatez baztandar gehiago fusilatu zituzten baina gainontzekoak Baztandik kanpo hil zituzten.

1995:43). Burgosen hil zuten. Berroetako Valeriano Intxauspe ere, auzokoen salaketengatik eta herriko apaizarengatik, Guardia Zibilak atxilotu, eta Iruñera eramán zuen. 1938ko maiatzaren 21ean, 51 urte zituela "Vuelta al Castillo"-n hil zuten. Zabaldutako zurrumurru baten arabera tirokatu zuenetako bat baztandarra zen. Burgosera eramán zuten Ituberria zeritzon bat denuntzia batengatik; Burgostik ez zen itzuli. Elbeteko Jose Etxeberria Orbaizetan hil zuten.

Udalak berak emandako hainbat informeren ondorioz, haraneko zenbait irakasle kargugabetu zituzten. *Junta Superior de Educación*-en erabakiei segituz, kargugabetu zutenetako bat Jose M^a Cherrail Almandozko irakaslea izan zen, ihes egin zegoena, baita Erratzuko maistra Maria Arevalo ere. Enpleguz eta soldataz santzionatuak izan ziren Zigako eskolako Eloy Erantxun eta Lekarozko Julia Martinez; eskolaz aldatzera behartu zituzten Erratzuko Manuel Mugertza eta Manuela Fagoaga. Beste hainbeste egin behar izan zuten Elizondoko maisu Carlos Menayak eta Dolores Morena Luzuniagak. Bestalde, Gartzaingo bi apaiz, Nicasio Mendiburu eta Joaquin Elizalde, Andaluziara bidali zituzten itzultzeko debekuarekin.

Probintzi batzordeak eragindako inkautazio espedienteak jasan zituzten beste batzuek, halanola Pedro Ruiz erratzuarrak, eta Pedro Iarra eta Agustin Arrieta elizondoaarrek.

Lekarozko kaputxinoen ikastetxean -Euskal Herriko zentro kultural garrantzitsuenetarikoa izan zena- euskal kulturak leku berezia zuen. Ikastetxe honetatik alor desberdinetako aditu anitz atera ziren: musikan, folklorean, euskarán... Altxamendua gertatzean, zentroa euskaltzaitasunetik garbitzea lehen mailako helburua bihurtu zen espainiar nazionalistentzat.

Zapalkuntza Elizak berak gauzatu zuen bere hierarkia erabiliz. Horrela 1938ko "Sagrado Corazon" egunean, Lekarozko zuzendari berriak, "Quien no esta con Franco, no esta con Cristo" erranez bukatu zuen meza. Ikastetxetik anitz jende kanporatua izan zen euskal kulturaren aldekoa izateagatik. Horrela, Aita Donostia (musikagile eta folklorista), Hilario Olazarán (idazle eta musikagilea), Jorge Riezu (idazlea), Ladislao de Donosti, Damaso Intza (Euskaltzaindiko kidea), Miguel Altzo (euskal idazlea) eta beste hainbeste jakitun atzerriratuak izan ziren; askok Argentinan edo Txilen bukatu zuten (Altaffaylla Kultur Taldea, 1986: 167).

Errepresioaren ondorioz, Nafarroako eta Espainiako beste tokietatik, jendeak Frantziara heldu nahi zuen. Urte ilun hauetan, Baztanen jende asko ihes egin nahian zebilen. Egunean zehar, bertakoek beraien etxeetan babesten zituzten, eta gauean muga zeharkatzen laguntzen zieten. Baztandarrek jende askori lagundu zioten. Muga guardia zibilak zaintzen zuen arren, oso erraza zen zeharkatzea (muga zeharkatzen harrapatuz gero, zigorra kartzela zen). Horrela, 1936ko abenduan, Almandozko Jose Maria Lizaso, Cristobal Juanea eta Damian Laurenzena atxilotuak izan ziren, iheslari batzuei muga zeharkatzen laguntzeagatik. Hemendik aurrera mugalari bezala ibiltzeagatik baztandar asko atxilotuko zituzten.

II.- Gerraostea (1939-1946)

Gerra Zibila 1939ko apirilaren batean bukatu zen, Francok errepublikar armadak garaitu zituelarik. Errepublikarrek orduan, ahal zutenek bederen, Espainiatik ihes egin zuten (Frantzia aldera gehienbat). Madril, Andaluzia, Albacete... inguruan zeudenak frankistek atxilotu zituzten. Atxilotu ez zituztenak mendian egon ziren ezkutatuta.

Baztanek gerraren hurbiltasuna gerra hasieran jasan zuen, nahiz eta gerra garaia nahiko ongi pasatu beste leku batzuekin konparatuz (frontean zeuden baztandarrak kenduta, noski). Gerra amaitutzat eman zelarik, European gerra piztuko zela zirudienez, Francok Frantziarekiko muga fortifikatzeari ekin zion. Egoera honen aitzinean Baztanek bi fenomeno berri bizi izan zituen. Alde batetik mugaren fortifikazioa eta militarizazioa, (Perez edo Gutierrez deitzen zuten lerroa) eta, bestetik, lan-batailoien presentzia.

II. 1. Lan-batailoiak

Gerra Zibila 1939an amaitu zen. Frankisten kartzelak errepublikar atxilotuez beteta zeudenez²³, atxilotu hauekin lan-batailoiak sortu zituzten. Lan-esku merkea zirenez, hasieran fortifikazio lanetan eta gero lan publikoak egiten jarri zituzten (errepideak, trenbideak...). Errepublikarrekin lan-batailoiak osatu zituzten eta Frantziarekiko muga fortifikatzera bidali zituzten. Baina hau ez zen Espainian soilik gertatu, Frantziak espainiar errepublikar errefuxiatuekin gauza bera egin baitzuen. Horrela sortu ziren *Groups de Travailleurs Étrangers* (GTE) Alemaniaren garaipena eta gero, *Service de Travail Obligatoire* (STO), deitzera pasa zena. Atlantikoko Gotorlekua eraiki zutenak adibide gisa hartzen ahal ditugu.

Baztanen lan-batailoiak 1938an agertu ziren, Errepublikaren Iparraldeko zonaldea (Asturias, Santander eta Bizkaia) konkistatu ostean, baina gerra amaitzean aise gehiago ziren. Baztanen Frantziarekiko muga fortifikatzen jarri zituzten Perez lerroan. Defentsa-lerro honen helburua, aliatuen inbasioei aurre egitea zen, baina fortifikazioak hutsune handiak zituen eta infiltratzeko leku ugari zeuden. Gainera material txarrez egina zegoen.

Lan-batailoiek makineriarik gabe, piko eta pala soilak baliatuz, bunkerrak, metrailadoreen habiak, errefugioak, bolbora biltegiak, errepideak eta kuartelak eraiki zituzten. Lan-batailoi bakoitzak, 600 preso zituen lau konpainiatan banaturik, teoriarik behintzat. Baztanen, bost batailoi ezberdin ibili ziren lanean: *Batallón de Trabajadores N° 1* (Elizondon eta Erratzun), *Batallón de trabajadores N° 18* (Iruritan), *Batallón de Trabajadores N° 64* (Amaiurren), *Batallón de Trabajadores N° 114* (Arizkunen) eta *Batallón de Trabajadores N° 128*. Batailoi hauen preso kopuruari dagokionez, Amaiurren kokatua zegoena

²³ Gerra bukatzean, garaileen kartzelak eta kontzentrazio esparruek 280.000 preso zituzten bere baitan eta milioi laurden errefuxiatu zeuden atzerrian. Preso hauetatik 70.000 lan-batailoietan enkoadratu zituzten, garaileen hitzetan Espainia berreraikitzen hasteko (Torres, 2000: 13).

kenduta, besteetan, denetara, 1.056 preso zituzten, batailoi bakoitzak bataz bestez 264 preso²⁴.

Batailoi hauek gutxi mugitu ziren. *Batallón de Trabajadores N° 1, Regimiento de Fortificaciones N° 1*-koa zenaren lehen aipamena erraterako, 1940ko apirilkoa da, Erratzun fortifikazio lanak egiten ari zirenekoa. 1942ko azaroan, batailoi beraren aipamena dago, baina kasu honetan kanpamendua Elizondon zeukan, Irurita-Artesiaga errepede militarra eraikitzen ari baitzen²⁵.

Presoak gehien bat bizkaitarrak, gipuzkoarrak, asturiarrak eta kantabriarrak ziren, baina beste toki askotakoak ere bazeuden. Kanpamendu bakoitza, herri baten modukoa zen. Barrakoiekin, kanpaina dendekin, sukaldeekin, zigor-kartzelekin eta abar.

Frankistek preso batzuk fusilatu zituzten. Erratzun adibidez, Francisco Valentín Paredes, Kordobakoa, *Batallón de Trabajadores N° 1*-koa²⁶. Amaiurren, langile behartu bat eta bi amaiurtar hilik suertatu ziren soldaduen patruila batekin izandako istilu baten ondorioz. Langile behartuak, Tomas Sanchez Berrocalek 21 urte zituen hil zutenean²⁷, baita Lino Etxeberria Larrain²⁸ eta Nicasio Zaldain Jaimerena²⁹ amaiurtarrek ere. Iruritan ere langile behartuen hilketa gehiago egon ziren, baina hilketa hauek, erregistroan ez dira agertzen, (seguruenik pertsona gehiago hilko zituzten baina ezin da jakin).

Presoek bertako biztanleekin harremanak zituzten. Hauek, lan baldintza txarretan aritzen ziren, eta janari gutxi ematen zieten elikatzeko. Horregatik, presoek, ahal zutenean, menditik Frantziara ihes egiten zuten, baina batzuk ez zuten zorte onik izaten. Gosea pasatzen zutenez, bertakoen baratzeetan sartzen ziren ahal zutena ebastera. Lapurretan harrapatuz gero, zigor gogorrek ezartzen zizkieten. Bestalde presoek ez zieten uzten herrietara jaisten, eta askotan inguruko baserriarekin trukeak egiten zituzten. Preso batzuk dirua zeukatenez, janaria ematea edo arropa garbitzea eskatzen zieten baserriarrei diru truk.

Lan-batailoiak errenplazu soldaduek zaintzen zituzten. Soldadu hauetako asko Baztangoak ziren eta zerbitzu militarra bertan betetzen zuten zaintza

²⁴ Baztango Udala, *Actas de Operaciones de Alistamientos* (1938-1941). Liburu honetan, lan-batailoiak osatzen zituzten preso errepublikar guztien zerrendak agertzen dira baina bakarrik Baztango udalerrian kokaturik zeudenak. Amaiurko herria Baztandik kanpo zegoenez garai honetan bertan zegoen lan-batailoiaren preso kopurua ezin dugu jakin. Gainera 1967an Amaiur Baztanera sartu zenean, udalaren artxiboak lekuz aldatzean dokumentu asko galdu ziren. 119-229 orrialdeen bitartean.

²⁵ Baztango Udala, Akten Liburutik (1941-1948). 1942ko azaroaren 10eko biltzarrean, Batailoiaren komandanteak udaletxeari batailoiaren animaliak (batez ere mandoak eta zaldiak) uzteko toki bat eskatu zion. 55.orrialdean.

²⁶ Baztango Epaitegia, *Registro Civil del Valle de Baztan-Libro de Actas de Defunción*, 55. liburukia (1940-1943), 9. orrialdean, (1940-IV-3).

²⁷ Baztango Epaitegia, *Libro de Actas de Defunción. Maya del Baztan*. VIII. liburukia, (1936-1966), 30. orrialdean (1939-IX-10). Tomas Sanchez Berrocal, 21 urte, bere jaioterria Santa Maria de Sando (Salamanca). Kaboa zen eta bere destinoa. *Batallón de Trabajadores N° 64*-koa zen.

²⁸ Idem 31.orrialdean (1939-IX-10). 24 urte zituen eta nekazaria zen.

²⁹ Gazte hau nahiz eta beste bi horiekin batera hil, bere *Acta de Defunción* ez da agertzen Baztango Epaitegian, baizik eta Iruñean. Nicasio 17 urte zituen hil zutenean.

lanetan. Hauetako batzuk, zerbitzu militarra egiteaz aspertzen zirenean, muga zeharkatu eta Frantziara ihes egiten zuten preso gisa. Agintari militarrek, batailoien agintea zeukatenez, bertako baserritarrak behartzen zituzten euren etxeetan hartzea, gela bat emanez. Zerbitzu honek *intendencia* zuen izena. Militar ofizialak, graduazio baxukoak ziren: kapitainak, tenienteak, edo alferezak; hauek astez aste baserriz aldatzen ziren.

Lan-batailoiak lau urtez egon ziren Baztanen, 1942an, gehienak deuseztatu zituzten arte, nahiz eta batzuk 1945 arte iraun. Preso batzuk aldiz, bertan bizitzen geratu ziren, bertako neskekin ezkonduz, eta bizi berria bertan hasiz.

II. 2. Perez Ierroa

Europan, 1939an, II. Mundu Gerra hasi zen. Hasiera batean, Francok bere aliatu alemaniar eta italiarrei lehengaiekin laguntzen zien (burdina, janaria, ikatza...). Espainiak beste herrien aurrean *no belligerante* gisa definitu zuen bere burua. Ardatzaren garaipena gertatuz gero Francok, Alemaniaren mesedea eskuratzeko, argudia zezakeen gerran Dibisio Urdina (hasiera batean falangistez osatua eta gero errepublikar preso) Sobietar komunisten kontra borrokatzea bidali zuela, nahiz eta zuzenean borrokatu ez. Baina Alemaniak gerra galtzeko arriskuaren aurrean, Francok, aliatuen garaipena ikusita, hauen inbasio bat jasan zezakeelakoan, muga fortifikatzeari ere ekin zion.

Gerra Zibila hasi zenetik, Baztanen unitate militar ezberdinak egon ziren kanpatuak. Hasiera batean, Baztango boluntarioak mugak zaintzen jarri zituzten baina denborarekin frontera bidali zituzten. Badirudi unitate militar ezberdinak aldika Baztanera bidaltzen zituztela muga zaintzera, eta, horrela, atsedean hartzen zuten, gerra denboraldi baterako alde batera utziz. Baina, udaletxearen eta Nafar Diputazioaren artean liskarrak sortu ziren tropen mantenuagatik. 1936ko abenduan, Diputazioak muga-tropen mantenua Nafarroako udalerrri guztiek ordaindu behar zutela erabaki zuen³⁰. Era honetan, Baztandik unitate militar ezberdinak pasatu ziren: Falangearen indarrak (1937), Infanteriako 334. Batailoia (1938), "Tercio de Orden y Policía" (1938)³¹. Gerra luzatzen ari zen bitartean, mugatik tropa gehiago pasatzen ari ziren. Prozesu hau gerra amaitu zenean gorenera heldu zen. Baztanen unitate ezberdinak destinatuz.

Fortifikazio lanak 1938tik hasiak ziren, eta arestian aipatu bezala, errepublikarren lan-batailoiak izan ziren obra hau egin zutenak. Fortifikazioa, inbasio motorizatu bat geldiarazteko helburuarekin egin zen, baina mendi-inguru asko fortifikatu gabe gelditu ziren. Muga fortifikatu honi, Perez Ierroa deitu

³⁰ Baztango Udala, Akten Liburutik (1934-1941), 1936ko abenduaren 10eko udal biltzarrean, Nafar Diputazioak notifikatu zien eta horrela liskarrekin bukatu zen. 144. orrialdean.

³¹ Idem. Gerra luzatzen zen ahala, eta gerraren bukaera hurbilago zegoela igarri zenean, mugetan tropen kopurua handitzen ari zela dirudi, eta aktetan, 1937-ko bukaeratik unitate ezberdinen aipamenak ugaltzen dira. Agintari *nazionalak* frantsesen ustezko interbentzio militar baten aurrean, mugetara tropak bidali zituzten. Unitate ezberdinen aipamenak 182, 191 eta 197. orrialdeetan.

zioten (Rodriguez, 2001: 121-122), Frantziako Maginot lerro ospetsua bezala baina espainiar erara (Gutierrez izenez ere ezaguna da).

Baztango muga, Perez lerroaren parte zen: bertako bi mendate oso ongi defendatu zituzten: Otsondoko mendatea eta Urkiagako mendatea. Otsondo, Elizondo-Urdax/Dantxarinea komunikazio bide garrantzitsuen erdian dago. Espainiak aliatuen erasoaz izanez gero, Urdax-Zugarramurdi eta Baztango zati batetik erretiratuko zen eta erresistentzia Otsondo mendatetik hasiko zuen (zonalde honetan bunker asko, metrailadore habiak eta mendi fortifikatu bat dago, *Zapadores Fortaleza N° 21.B* delakoa, bertan zapadoreen batailoiko goarnizio bat zegoelarik). Urkiaga mendatea, Iruñea-Donibane Garazi bidean dago eta mendate honetan, bunker, metrailadore habi eta lur azpiko instalazio anitz daude.

Bi leku hauek kenduta, erraza izaten zen muga zeharkatzea. Goarnizio hauek zaintzen zituzten soldaduak oso kondizio txarretan zeudenez, gogo gutxi zeukaten. Gainera, soldadu askok ezkertiarak izateagatik (*desafectos al regimen*) hiru urteko zerbitzua bete behar zuten zigor gisa. Mendietan, militarrek metrailadore habi isolatuak alde guztietatik eraiki zituzten, eta patruilak ibiltzen ziren alde batetik bestera.

Goarnizio hauek alde batera utzita, Izpegiko mendatean, Erratzun, Lamiarritan (Arizkungo auzoa), Elizondon eta Iruritan militarren goarnizio eta destakamendu gehiago zeuden. Orain arte ikusitakoaren arabera, garai honetan Baztan oso militarizatu zegoela argi dago: Baztanen 1.000 soldadu baino gehiago egonen ziren kanpaturik lan-batailoietako 1.000-tik gora preso kontatu gabe. Kontutan hartu behar da, unitateak tokiz aldatzen zituztela eta garai batzuetan soldadu gehiago edo gutxiago egongo zirela. Unitate ezberdinak ibili ziren urte hauetan zehar: *Regimiento de Fortificaciones N° 1*, *Regimiento de Infantería América N° 66*, *Regimiento de Infantería San Marcial N° 107*, etab.

Baina militarrez gain, guardia zibilak Baztango herri guztietan (Anizen izan ezik) kuartelak zituen. Hauek mugetako infiltrazioen aurka borrokatzen ziren. Guardia zibilei dagokionez, bi guardia mota zeuden hasieran: *Rurales* eta *De Fronteras*. Baztanen *rurales* zeritzon 39 guardia zeuden eta *de fronteras* zeriotzonetik 104³². Baina 1944ko udatik aurrera gehiago ziren *Guardia Civil de Especialistas*-eko kideak Erratzura destinatu zituztelako. Guardia zibilak patruilak antolatzen zituen mugaren defentsarako eta kontrabandista eta iheslariak harrapatzeko. Mugan bizi ziren pertsonen zerrendak egin zituzten. Bertatik ibiltzeko *salvoconducto*a behar zen. Askotan guardiek, baserri pribatuetan ostatu hartzen zuten, baserritarrak behartuz eurei ohea eta janaria ematera.

³² Baztango Udala, Akten Liburutik (1941-1948). 1942-1946 urteen bitartean, guardia zibileko buruzagien (*Don José Mourillo Lopez Teniente Coronel de Infantería y primer Jefe de la Comandancia de la Guardia Civil de Fronteras*) eta udaletxearen artean liskar ugari gertatu zen, alde batetik gardien kopurua handitzean, kuarteletan ez ziren sartzen eta gainera kuartelak zaharkituak zeuden. Guardia zibileko buruzagiek kuartel berriak eraiki nahi zituzten baina udaletxeak horretarako dirurik ez zuen. Bestalde mediku eta farmazeutikoen zerbitzuengatik ordaindu behar zutelako agintzen zuen udaletxeak eta honek liskar gehiago egotea ekarri zuen. 26, 84, 90, 91, 92 eta hurrengo orrialdeetan.

Militarren eta guardia zibilen presentzia oso gogorra zen eta noiznahi sortzen ziren istiluak soldaduak mozortzen zirelako eta herritarrei lapurtzen edo zerbait errekiatzat zirelako (abereak, irina...)³³. Militarrek beste arazo batzuk ere sortu zituzten leku publikoak apurtuz, zikinduz eta okupatuz³⁴. Gainera, militarrek, bereziki kanpokoak zirenek, oso jarrera txarra zeukaten. Adibidez, Baztandar neskengatik lehia bizia egoten zen bertakoen eta kanpokoaren artean. Baztandarrentzat militarrek egotea ez zen bat ere ona, eguneroko bizitzan militarrek traba anitz jartzen zizkieten eta. Baztandarrek gainera mendiko lana bakarrik egiten zuten (abeltzaintza, mendi ustiakuntza eta kontrabandoa) jardura hauetan ere oztopoak sortzen zituzten. Baina istilu hauek ez ziren Baztanen bakarrik izan, Nafarroako iparraldeko herri guztietan ere militarren presentziatik istiluak sortu baitziren.

Militarrak erran bezala, eguneroko bizitzan oztopoa izateaz gainera, arriskutsuak ziren. Militarren patruilen ondorioz, 1939-1940 bitartean lau baztandarrek bizia galdu zuten: Juan Cincambre Lamotek³⁵ (1939-VIII-16) Laurentx bentaren ondoan, Pio Jaimerena Miura³⁶ (1940-I-11) Otsondoko bidean, eta, arestian aipaturiko bi gazte amaiurtarrek, hots, Lino Etxeberria Larrain eta Nicasio Zaldain Jaimerena.

1944ko udazkenean, makien infiltrazioengatik, soldadu eta Guardia Zibil gehiagoren bidalketarekin, muga gehiago militarizatu zen. Garai honetan adibidez, *Regimiento de Infantería Valencia N° 123* erregimentu osoa ibili zen³⁷. Baina hauez gain, Nafarroan *FET de las JONS*-eko kideek *somaten*, talde paramilitarra sortu zuten gerrillari aurre egiteko³⁸. Baztanen ere honelako talde bat egon zen, eta gauean herritarrez osaturiko patruilak ibiltzen ziren herriak zaintzen. Militarrek gainera, herrietan gidariak kontratatzen zituzten mendietan gidatzeko³⁹. Udaletxeak ahal zuen moduan militarizazioa areagotu zuen, udaletxeko guardak eta mendiko-

³³ Baztango Udala, Akten Liburutik (1934-1941). 1937ko abenduaren 26ko udal batzarrean hitz egin zen Falangeko indarrek Erratzun sortutako istiluei buruz, dendetan euren mantenturako elikagaiak hartu zituztelako, eta jabeak udaletxeari eskatu zion bere merkantziak ordaintzea. 182. orrialdean.

³⁴ Baztango Udala, Akten Liburutik (1941-1948). 1941ko irailak 29an udal batzarrean, Arizkungo alkate "juradoak" Udal Batzarrari berri eman zion, herrian destinatuak zeuden soldaduek Lamiarritako frontoia eta plaza guztiz apurtu zituztela. 11. orrialdean.

³⁵ Baztango Epaitegia, *Registro Civil del Valle de Baztan-Libro de Actas de Defunción*, 54, liburukia. (1937-1940), 293. orrialdean. Juan Cincambre Lamot, 60 urtekoa, Elbetean bizi zen eta nekazaria zen.

³⁶ Baztango Epaitegia, *Libro de Actas de Defunción, Maya del Baztan*, VIII. liburukia, (1936-1966), 35. orrialdean. Pio Jaimerena Miura, 59 urtekoa, Amaiurkoa eta lanbidez nekazaria, "Fue muerto en la carretera, por los soldados que estaban de vigilancia".

³⁷ Baztango Udala, Akten Liburutik (1941-1948). 1945ko martxoaren 24ko biltzarrean udaletxeak erregimentu honek neguan zehar egindako elur garbiketengatik eskerrak eman zizkien. 168. orrialdean.

³⁸ Primo de Riveraren diktaduran, estatua gehiago indartzeko *somaten*-a sortu zuten, talde paramilitar modura. Somaten-aren jatorria berez katalana da eta Aro Berritik dator baina Frankismoak, *FET de las JONS*-eko kideak somatenetan bildu zituen, muga babesteko eta makien infiltrazioak eragozteko. Unitate paramilitar hauek, oso erabilgarriak izan ziren gerrilarien aurkako partidetan aritzeko, *maquis blanco* bezala izenaz ere ezagutua zen. (Rodríguez, 2001: 134-135).

³⁹ Baztango Udala, Akten Liburutik (1941-1948). 1945ko azaroaren 5ko biltzarrean udal biltzarrek erabakitzen du *Regimiento de Infantería San Marcial N° 107*-ko gidarien soldada udaletxeak ordaintzea. 184. orrialdean.

guardak arma motz eta luzeekin armatuz⁴⁰. Garai mugituak heldu zirenaren adierazle.

Gerra Hotzari esker, muga militarizatua 1947an kendu zuten, aliatuak ados jartzen ez zirelako. Sobietar Batasunak Francoren diktadura kendu nahi zuen, besteek aldiz (AEB, Britainia Handia eta Frantzia) nahiago zuten Espainiarentzat diktadura eskuindarra komunismoa baino. Horrela, mugetako goarnizioak kentzen joan ziren, nahiz eta Baztanen militarren kuartel batzuk mantendu.

II. 3. Makiak, 1944ko inbasioa

Makiak, Frankismoaren aurkako gerrilariak ziren, Espainiatik Frantziara ihes egingako errepublikarrak hain zuzen.

Beraien presentzia Espainiako beste zonaldeetan nabarmenagoa izan zen: Santanderren, Asturiasen, Galizian, Granadan, Maestrazgon... nahiz eta Baztanek eta Nafarroako iparraldeak, makien inbasio saialdiak bizi. Inbasio saialdi gogorrena 1944. urtean izan zen.

Frantzian II. Mundu Gerra piztean eta alemaniarren inbasioa gertatzean, espainiar errefuxiatu errepublikarrek mendietara eta klandestinitatera joan behar izan zuten. Alemaniarrek, espainiar errefuxiatuak eskulan gisa erabili zituzten. Haietako askok kontzentrazio esparruetan bukatu zuten. Egoera hori ikusita, errepublikarrei Franco bere kargutik botatzea nahitaezkoa iruditu zitzairen eta Alemaniak gerra galtzea. Horregatik, espainiar hauek, Alemaniaren aurkako erresistentzia ekintzak egiten hasi ziren. Hasi ez ezik 1944an garaipena lortu zuten Frantziaren askapenean lagunduz.

Gerrillari hauei alemanek *maquisard* deitzen zieten eta hortik dator *maquis* izena. PCE izan zen egitura finko bat osatu zuen alderdia espainiar errefuxiatuen artean Francoren kontra aritzeko. Herri Frontearen izpiritua berpizten saiatu zen *Unión Nacional Española* (UNE) sortuz. Espainiar errefuxiatu asko zegoen. PCE-k bere militanteak ugaltzeko proselitismo kanpaina izugarria egin zuen, eta *Espainiaren Birkonkista* operazioa prestatu zuen 1944ko udazkenerako. Aliatuek ez zieten asko lagundu, gainera, gutitan igorri zizkieten armak. Arma guti izan arren, zeukatenarekin moldatuz eta alemaniarrei kendutakoak gogoan hartuz, Espainian sartzeko prest zeuden. UNE-ak 12.000 gerrillari bildu zituen Espainiar mugaren ondoan. Ekintza zuzenena Aran haranaren inbasioa izan zen. Helburu hau bete baino lehen, iraila eta urrian, beste gerrillari unitate batzuk Nafarroan, Gipuzkoan, Huescan eta Gironan sartu ziren; hiru mila gerrillarik parte hartu zuten. Operazio hauek etsaia nahastea zuten helburu.

Inbasioa izan baino lehen, PCE-ak Frantziako zuzendaritzatik ipar-ekialdeko gerrillari taldeekin eta militantziarekin kontaktuan jartzeko, Nafarroa erabiltzen zuen bitartekariak (*enlaces*) sartzeko. Nafarroan sartzeko lau sare

⁴⁰ Idem. 1943ko abenduaren 2ko udal biltzarrean erabakitzen da guardak armatzea eta horretarako alkateak armak erosiko dituela. 113. orrialdean.

zeuden bata bestearekiko independenteak, bakoitza kolaboratzaile eta gidari propioekin. Lehenengoa Eska eta Zaraitzu haranetatik, bigarrena Irati oihanetik, hirugarrena Orreaga mendebaldetik (Baztango mugan) eta laugarrena eta azkena Etxalar-Amaiur bitartetik sartu ziren. Sare hauek denetara 24 gizon zituzten eta bertatik zuzendaritzaren agindu eta mezuak jasotzen ziren. Muga, baldintza klimatologiko txarretan zeharkatzen zen, batez ere neguan. PCE-ko militanteak baso ustiakuntzetan aritzen ziren lanean, lortutako dirua alderdiari emanaz.

Espainiaren Birkonkista operazioan Francoren erregimena deuseztatzea zuten helburu. Horretarako Nafarroa, Huesca eta Lleidatik sartu behar zuten. Nafarroaren kasuan, herrialde honen mugaren ondoan, 800 maki zeuden unitate ezberdinetan antolatuta. Nafarroan, gerrillari eta tropa frankisten arteko borrokak, irudimenezko bi hirukitan garatu ziren, Luzaide-Burgi-Belagua eta Bera-Aralar-Orreagaren artean. Borrokak arestian erran bezala, arras baldintza klimatologiko txarretan egin ziren: elurra, lainoa, euria, hotza... Honengatik guztiagatik, makien mugimenduak mugatuak izan ziren.

Konbate gogorrenak lehenengo hirukian gertatu ziren, Nabaskoze eta Bidankoze herrietan. Infiltrazioak izatean, soldadu gehiago ekarri zituzten Gipuzkoatik mendiak makiz garbitzeko. Oso egoera nahasian bizi izan ziren gehienak, biztanleriaren gehiengoak ez baitzekien deus borroka hauei buruz, mugetako herrietako biztanleek izan ezik.

Baztanen makiak ez ziren zuzen sartu, haranaren ipar-mendebaldeko eskualdean, Etxalarrekin mugan eta Quinto Realeko partean soilik. Bi toki hauek lehenengo inbasioan aukeratutako lekuak ziren, eta bertatik gerrillari talde handiak sartu ziren. Lehenengo tropekin borrokak izan eta gero, talde hauek talde txikiagotan banatu ziren Nafarroa iparralde osotik ibiliz. Horrela Baztanen, urriaren 18 eta 22an makien bi talde atxilotu zituzten tropa frankistek: lehenengokoak hiru izan ziren, eta Belate mendatean harrapatu zituzten *Regimiento de Infantería América N° 66*-ko soldaduek. Beste taldean hamabi gerrillari atxilotu zituzten Frantziara itzuli nahian zebiltzala.

Inbasioek erakutsi zuten gauzetako bat, armada gerrillaren aurka aritzeko prest ez zegoela izan zen. Mugetako goarnizioak, errepublikar ohiez eta errenplazuko soldaduz osatuak zeuden. Soldaduak oso urduri zeuden eta gau guztietan tiroketak izaten ziren: soldaduek abereei edo mugitzen zen gauza orori botatzen baitzieten tiro. Kintoak, eta errepublikarrak nahasturik zeuden, baina errepublikar asko, beraien bizitzarekin nazkatuak zeuden. Hauek gerran egondakoak ziren, kartzelatik pasatutakoak bizpahiru urtez, gero lan-batailoietan egonak eta azkenik berriro hiru urtez, zerbitzu militarra egitera behartuak. Soldaduen urduritasunak eta askoren esperientzia faltak, egoera bitxiak sortu zituen. Bertizen, erraterako, soldaduen sekzio bat gau guztian mendian zehar egon zen basurde batzuen atzetik makiak zirelakoan.

Azkeneko inbasioa, urriaren 30ean gertatu zen. Berrehun gerrillari Bentarte, Hazpegi, Urepele eta Berdaitzeko lepoetatik barna Ultzama

haranean sartu ziren⁴¹. Soldaduekin topo egin zutenean taldea banandu egin zen, eta talde txiki bakoitza ahal zuen moduan itzuli zen: batzuk Erronkari aldera, beste batzuk Baztan aldera eta beste batzuk barnealdera sartzen saiatu ziren. Inbasio hauek guztiak porroterako bakarrik balio izan zuten, gerrillari asko galdu baitziren.

1944ko urrian makien mugimendu asko izan ziren baina hurrengo urteetan, infiltrazioak nabarmenki jaitsi ziren. Esan genezake sinbolikoak izan zirela. 1945ean frantses gobernuak, behin estatua berreginda, Espainiako mugaren ondoko lurraldearen kontrola hartu zuen, eta makiak desmobilizatu zituen frantziar gizartean sartuz. Espainiar errepublikarrei errefuxiatu estatutua eman zieten. Otsailean, Bankatik berrogei gerrillari, muga militarizatu zeharkatu eta barnealdera joan ziren. Hurrengo hilabetean beste hamabortzek zeharkatu zuten muga. Maki hauek nahiago izan zuten borrokan jarraitu Frantzian bizi berri bat hasi baino.

1945-1946 urteen bitartean infiltrazio txikiak gertatu ziren. Infiltrazio hauek Pirinio guztian gertatu ziren, talde hauek barneko makiekin elkartu nahi baitzuten. Baztanen makien azkeneko ekintzak 1946ko otsailean izan ziren: gerrillari talde batek, Erratzuko Bernatenea eta Otanartea baserrietan sartu, eta 30.000 pezeta eraman zituzten. Horrelako kolpe ekonomikoak muga hurbileko herrietan arruntak izan ziren. Zugarramurdin, adibidez, Bergarako bentetan sartu, eta hemendik ere dirua eraman zuten. 1946tik aurrera, koiuntura internazionalaren ondorioz, muga desmilitarizatu zuten agintariek, eta makiek beste eskualdetan indartu zituzten beraien ekintzak, Perineoko muga kontrabandistentzat utziaz.

II. 4. Mugalariak

Baztan, muga ondoan dagoenez, kontrabando lekua da dudarik gabe. Gerraosteko urte gogor haietan, muga ondora pertsona asko etortzen ziren muga zeharkatzeko laguntza eske. Gerra amaitua ez zegoen garaian, laguntza hau antolaketarik gabe egiten zen, baina denborarekin, EAJ alderdiak sare antolatu bat sortu zuen. Bestetik, sare ezberdinak antolatu ziren: Frias sarea, Korta sarea, De Gaulle sarea... (azken hau, Erratzu eta Baigorri bitartean), baina guztiak helburu berarekin: errepublikarrak Espainiatik ateratzea. Sare hauek alderdien barrualdeko mezuak eramateko ere balio izaten zuten, informazio garrantzitsua bertatik pasatuz. Baztandar hauen mugalari lanari esker pertsona askok bizitzea lortu zuten.

Alemanak 1940an Parisen sartzean, Euskal Gobernuako enbaxadan sare hauei buruzko dokumentu garrantzitsuenak errequisatu zituzten eta polizia frankistari eman zizkieten. Dokumentu konprometitu hauekin, baztandar asko atxilotu zituzten: Araba sare garrantzitsuko Bittori Etxeberria, Agustin Ariztia eta Esteban Etxeberria. Hauei hasiera batean heriotza zigorra ezarri zieten, baina gero, 30 urteko kartzelaldira zigortu zituzten (Chueca, 1990: 112-113). Sareko buruzagia zen Luis

⁴¹ Makiek egindako azkeneko eraso honetan ez dago zehaztuta zenbat ehuneko ziren, Josu Chuecak (1990: 113-114) 200 zirela eta muga lepo ezberdin horietatik 50-eko taldeetan zeharkatu zutela erraten du. Bestalde Mikel Rodriguezek (2001) Bentarteatik 300 sartu zirela erraten du. Nire ustez, Chuecak errandakoak logika gehiago dauka, muga zeharkatzeko talde txikiagotan errazagoa delako.

Alava 1943an fusilatu zuten; sarearen izena beregandik zetorren. Garai hauetan, Madrilgo kartzeletan 51 baztandar zeuden eta beste hainbeste Iruñea eta Donostiako kartzeletan, gehienak mugalari sareetan parte hartzeagatik (Altaffaylla Kultur Taldea, 1986: 168).

Alemaniak Frantzia okupatu zuenean (1940-1944), sare hauek eta beste berri batzuk sortu zituzten, baina orain iheslariak kontrako norabidean pasatzen ziren: Espainiara. Gurutze Gorriak 1940an Frantzian bost milioi errefuxiatu zeudela eman zuen aditzera. Errefuxiatuak toki guztietakoak (espainiarrak, herbeheretakoak...) eta mota guztietakoak (soldaduak, antifaxistak, juduak...) ziren. Garai hau mugalarien urrezko garaia izan zen. Mugalari asko horrela aberastu ziren, baina beste batzuek ez zuten dirurik hartzen. Alemanek muga ez zeharkatzeko austriar muga-guardiak ekarri zituzten, baina hauek mugalariekin txokerik ez izateko, mendian zarata handia eginez ibiltzen ziren⁴². Mendian mugalariak hartzea oso arraroa izan zen baina txibatazo edo salaketengatik zenbait atxilotu zituzten. Hori zela eta Sara, Ainhoa, Ziburu eta Hendaiako biztanle anitz deserriratu izan zen.

Ingelesek oso ongi ordaintzen zuten beraien pilotu "lurrera eroriak" Espainian zituen enbaxadetara iristen laguntzea. Pilotu bakoitzeko 3.200 pezeta ordaintzen zen, sare asko ibili ziren helburu hau bete nahirik. Sare hauetatik *Red Comete* zen ezagunena eta garrantzitsuenetarikoa (Rodriguez, 2001: 86).

Haritzeko gazteluan, Uztaritzen, Xabier Laborde komandanteak ihes-sare txiki baten buruzagitza zeukan. Ezpeletan zuten etxeak bi sarrera zituen: bata Frantzian eta bertzea Espainian. Iheslariak Ezpeletatik Dantxarinera (Urdazubi) pasatzen ziren. Goarnizio poloniarrek ez zuen deus susmatu lau urtetan. Muga zeharkatuta, Elizondorainoko bidea mugalarien laguntzaz egiten zen. Hogei urte inguru zituzten mugalari hauei gutxi ordaintzen zitzairen, eta bidea gauez egiten zuten. Sare hau erabiliz, frantses militarrek eta euren familiak pasatzen ziren, baita ingeles piloturen bat ere. Jende andana pasatu zen eta Espainiara iristean aske gelditzen ziren. Elizondotik errefuxiatu hauek Donostiara eramaten zituzten, guardia zibilarekin kontu handiz ibili behar baitzen (Rodriguez, 2001: 85-86).

III.- Bertako biztanleen eguneroko bizitza

Baztandarrei urte gogorrek bizitza egokitu zitzairen: Gerra Zibila eta gerra amaitu osteko garaia. Baina beste toki askotan ez bezala, baztandarren gehiengoak zortea izan zuen. Gerra Zibilaren garaian (1936-1939), bertako populazioak gerra urrundik ikusi zuen, baina gazteak eramaten hasi zirenean, gerrak eta errepresioak sortutako heriotzak Baztango familia anitz ukitu zituen gerraren krudeltasuna agerian geldituz. Gazte askok gerran hil baino lehen, nahiago izan zuen Frantziara ihes egin. Hala ere, erran behar da errepresioa ez

⁴² Pedro Urrutia, gerran aritu eta gero, Espinal aldean baso ustiakuntzan lanean ibili zen eta Baztanetik alde hartara joateko modu azkarrena mendian zehar joatea zela dio, muga jarraituz. Berak kontatzen du soldadu alemanek gauetan, botak eta gerrikoak oso distiratsuak zituztela eta oso urrundik ikusten zirela. Guardia zibilak askoz zailagoak ziren ikusteko.

zela beste tokietan bezain gogorra izan, nahiz eta zoritxarrez, hildakoak eta atxilotuak egon ziren.

Gerrarekin batera, beharrezko produktuen eskasia etorri zen (olioa, irina, arraina...). Baserri asko zeudenez, auto-askitasuna ziurtatuta zeukaten baserritar familiek. Baserri edo baratzerik ez zuten familiek, ordea, okerrago pasatu zuten, Elizondon bizi zirenek batez ere. Gerrarako animaliak errekiatu zituzten: garraiorako zaldiak, astoak eta mandoak, eta jateko ardiak, zerriak, behiak...

Abeltzaintza oso garrantzitsua zen Baztango ekonomian. Abere asko mendietan solte zebiltzan eta artzainak euren abere taldeak zaintzen egoten ziren. 1941. urtean abere lapurrak (*cuatros*) ibili ziren mendietan Baztango artzainei lapurtzen. Gero, lapurtutako abereak (ardiak batez ere), Frantziara eramaten zituzten han saltzeko. Abere lapur hauek Donibane Garaziko alemaniar tropa okupatzaileen eta Baigorriko jendarmeen kooperazioari esker atxilotuak izan ziren⁴³. Egoera ekonomikoa zailtzean, bai mugaren alde batean zein bestean, abere lapurretak ugaltu egiten ziren.

Estatuak errazionamendua ezarri zuen eta irina egiteko errota guztiak itxi zituzten, Zozaiakoa kenduta. Errazionamenduak, familia bakoitzari janari kopuru batzuk ematen zizkion (ogia, olio, azukrea eta beste gauza batzuk) baina errazionamendua ez zen bizitzeko aski. Produktu hauen kalitatea oso txarra zen. Ogia, adibidez, harea bezalakoa zen. Baserritik lortutako produktuekin bizitzeko janaria lortzen zen baina askoz gehiago ez. Errazionamendua 1942-1943 urteetan kendu zuten, nahiz eta oraindik eskasia handia egon.

Gerra garaian familia askok ez zuen bizitzeko adina behar zen oinarrizko janaririk, eta, gainera, gizonak frontera eramatean, lan indarra ere falta zen. Horregatik Udaletxeari diru laguntzak eskatzen zizkioten. Udaletxeak jende askori eman zizkion, batez ere emakumeei. Udaletxearen ia biltzar guztietan erabakitzen zen familia bateri edo besteari diru laguntza ematea. Frontetik gizon elbarrituak itzultzean (baita itzuli ez zirenei ere), udaletxeak hauen familiei laguntzak eman behar zizkien. Behartsuak laguntzeko beste modu bat *Establecimientos Provinciales de Beneficiencia* delakoetara jotzea zen. Estatuak ere *Auxilio Social* eta *Ficha Azul*en bitartez herritar behartsuei laguntza ematen zien⁴⁴.

Nekazaritzatik elikagai nagusiak lortzen ziren: garia eta artoa, baina hauek xehatzeko toki bakarra Zozaiako errota zenez, zakuekin guardia zibilak ikusi gabe, menditik joan behar zen, zakuen karga errekiatzen baitzuten. Guardia zibila, biztanleria baino zertxobait hobe bizi zen baina eurek ere gosea pasatzen zuten.

⁴³ Baztango udala, Akten Liburutik (1941-1948). 1941ko abenduaren 11ko udal biltzarrean, udalak Donibane Garaziko alemaniar indar okupatzaileei eta Baigorriko jendarmeei eskerrak eman zizkien Frantziara ihes egindako abere lapurrak harrapatzeagatik. 15. orrialdean.

⁴⁴ Baztango Udala, Akten Liburutik, (1934-1941). 1940eko abenduaren 19ko biltzarrean aipatua. 249. orrialdean.

Gerra bukatu zen arren, egoera gutxi aldatu zen: soldadu gazteak, zortea izan zutenak batik bat, herrietara itzuli ziren. Bertan, batzuk berriro armatu zituzten muga babesteko. Soldaduak eta presoak agertu ziren Baztanen, hauekin bertakoek merkataritza harremanak izaten baitzituzten. Soldaduen produktuak kalitate hobekoak zirelako (euren ogia *chusco* deitua), arrakasta handia zuen baztandarren artean. Militarren bidez olio a lortzen ahal zen. Olio luxuzko produktu bihurtu baitzen gerraz geroztik. Bertakoek militarrei etxeko produktuak ematen zizkieten: haragia, arrautzak, irina... Arrainak, Donostiatik ekartzen zituzten eta arraina bertoko produktuekin trukutzen zen, garai honetan dirua gutxi erabiltzen zen-eta.

Gauetan gazteak bidaltzen zituzten ogia ekartzera Frantziatik muga zeharkatuz. Iruritakoak, adibidez, Aldude edo Urepelera joan eta ogia erosten zuten. Arriskutsua izan ohi zen, jendarmeez harrapatuz gero izugarritzko makilkadak emateaz gain, erositako janaria kentzen zutelakoz.

Muga oso zaindua zegoen. Guardia zibilak inguruko baserrietako jendeen zerrendak egin zituen eta biztanleak behartu *salvoconducto*ak gainean eramatera, hori egin ezean zigorra handia izaten zelarik.

Ez zegoen lanik. Baserria zen lan bakarra. Baina jende asko ezin zen bizi baserriko lanetatik eta horregatik gazte anitzek kanpora joan behar izan zuten: Frantziara eta Amerikara batez ere. Amerikara joandakoak artzain gisa aritu ziren, eta Frantziakoak berriz, mendi-mutil. Nafarroako Perineotara gazte asko joan ziren Iratiko basoak ustiatzera. Denborarekin, egoerak hobera egin zuenean, euren herrietara itzuli ziren gazte hauek. Hemen geratu ziren gazteak, kontrabandoan aritu ziren edo bestela mugalari sareetan parte hartu zuten. Kontrabandoaren urte onak 50 eta 60 hamarkadetan izan ziren.

IV. Lana egiteko erabilitako iturriak

IV. 1. Bibliografia

- Altaffaylla Kultur Taldea (1986): *Navarra 1936, de la Esperanza al Terror*, Altaffaylla Kultur Taldea, Lizarra.
- Askoren Artean, (1995): *Zubieta 1931-1936. Errepublikari eta 1936-ko Gerra Baztan-Bidasoan. Ahozko Dokumentuak Zubietako Adibidea*, Itxaropena, Zarautz.
- Chueca, J. (1990): "Erregimen Frankistaren aurkako zenbait ekintza eta erakunderen berri", *Geronimo de Ustariz*, 4, 112-115.
- Chueca, J. (1999): *El Nacionalismo Vasco en Navarra 1931-1936*, Euskal Herriko Unibertsitatea. Zarautz.
- Esparza, J. M (2000): *1936 Gerra Zibila Euskal Herrian; Altxamendu Militarra Nafarroan*, Aralar Liburuak, Andoain.
- Esparza, J. M (2000): *1936 Gerra Zibila Euskal Herrian; Errepresioa Nafarroan Gerra Zibilaren garaian*, Aralar Liburuak, Andoain.
- Ferrer, M. (1992): *Elecciones y Partidos Políticos en Navarra durante la Segunda República*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Rodrigo, J. (2003): *Los Campos de Concentración franquistas. Entre la Historia y la Memoria*, Siete Mares, Madril.
- Rodríguez, M. (2001): *Maquis la Guerrilla Vasca 1938-1962*, Txalaparta, Tafalla.
- Serrano, S. (2001): *Maquis, Historia de la Guerrilla Antifranquista*, Temas de Hoy, Madril.
- Torres, R. (2000): *Los Esclavos de Franco*, Oberon, Madril.
- Ugarte, J. (1998): *La Nueva Covadonga Insurgente. Orígenes sociales y culturales de la sublevación de 1936 en Navarra y el País Vasco*, Biblioteca Nueva, Madril.

IV. 2. Elkarrizketatuak

- Pedro Urrutia Bikondoa, 1916ko irailaren 3an jaioa, 88 urte ditu eta Iruritakoa da. Gerra Zibilean nazionalekin borrokan ibili zen eta gerra bukatzean, herria zaintzeko talde paramilitarretan ibili izan zen.
- Josefa Egi Jaunsaras, 1927ko azaroaren 17an jaioa, 75 urtekoa eta Iruritakoa. Gaztea zenean, harreman handiak izan zituen lan-batailoietakoko presoekin.
- Teresa Iribarren Elizetxe, 1914ko otsailaren 2an jaio zen, 89 urtekoa. Urruxka baserrian (Elizondo) bizi da. Baserria mugatik oso gertu dago. Kontrabandoa eta mugalari lanak txikitatik ezagutu zituen.

IV. 3. Baztango Udalaren Akten Liburuak

- Baztango Udalaren akten liburua (1934-1941).
- Baztango Udalaren akten liburua (1941-1948).
- Baztango Udala, *Actas de Operaciones de Alistamientos* (1938-1941).

IV. 4. Baztango Epaitegia

Registro Civil de Defunciones-Libro de Actas de Defunción, 53. liburukia (1934-1937).

Registro Civil del Valle de Baztan-Libro de Actas de Defunción, 54. liburukia (1937-1940).

Registro Civil del Valle de Baztan-Libro de Actas de Defunción, 55. liburukia (1940-1943).

Libro de Actas de Defunción, Maya del Baztan, VIII. liburukia, (1936-1966).